



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko ekainaren 11

78. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Odol-emailearen Mundu Egunarekin bat egiten baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (2. or.).
- Adierazpen instituzionala, aren bidez Nafarroako Parlamentuak eskertu eta aitortzen baitu Nafarroako Gurutze Gorriaren, Nafarroako DYaren eta COVID-19aren aurkako txertaketa-prozesuan boluntario gisa aritu diren eta ari diren pertsona guztien lan bikaina. Eledunen Batzarrak onetsia (2. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu #ExigimosLaIgualdadTrans kanpainarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (3. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, Haur Eskolen Zerbitzu berriari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (4. or.).
- Galdera, maskaren erabilerari buruzkoa. Patricia Fanlo Mateo andreak egin du (4. or.).
- Galdera, desgaitasuna duten edo izateko arriskua duten 3tik 6 urtera bitarteko seme-alabak dauzkaten familiei ikastetxeetan ematen zaien arretari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (5. or.).
- Galdera, desgaitasuna duten edo izateko arriskua duten 3tik 6 urtera bitarteko seme-alabak dauzkaten familiei ematen zaien arretari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (5. or.).
- Galdera, Tuterako zubia zaharberritzeari buruzkoa. Yolanda Ibáñez Pérez andreak egin du (6. or.).
- Galdera, Lurralde Kohesiorako kontseilariak iragarritako 17,6 milioi euro inguruko 13 obrei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, Dualiak ematen duen telefono bidezko interpretazio zerbitzuari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, errenta bermatuaren jasotzaileei Estatuak ordaindutako diru-kopuruari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (7. or.).
- Galdera, Cidacos eta Aragoi ibaietako alubioietako lurpeko uren kutsadurari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, Caparrosoko Valle de Odieta SCL abeltzegiari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (10. or.).

---

**E saila:**

**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Odol-emailearen Mundu Egunarekin bat egiten baitu.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko ekainaren 7an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Odol-emailearen Mundu Egunarekin eta bere egiten du egun horretako leloa: “Eman odola munduak tau-paka jarrai dezan”.

ADONA-Nafarroako Odol-emaileen Elkartearen eta bere boluntario guztien lana eskertu eta aitortzeko, Nafarroako Parlamentuaren egoitzaren

fatxada gorri argizatuko da heldu den ekainaren 14an.

Nafarroako Parlamentuak, bere eskumenen esparruan, konpromisoa hartzen du ADONAK abian jarritako sentsibilizazio ekimenak babestu eta sustatzeko, emate altruistek osasun sistema-ren jasangarritasuna bermatzen jarraitu ahal izateko”. (10-21/DEC-00032).

Iruñean, 2021eko ekainaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak eskertu eta aitortzen baitu Nafarroako Gurutze Gorriaren, Nafarroako DYaren eta COVID-19aren aurkako txertaketa-prozesuan boluntario gisa aritu diren eta ari diren pertsona guztien lan bikaina.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko ekainaren 7an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak eskertu eta aitortzen du Nafarroako Gurutze Gorriaren, Nafarroako DYaren eta COVID-19aren aurkako txertaketa-

prozesuan boluntario gisa aritu diren eta ari diren pertsona guztien lan bikaina”. (10-21/DEC-00034).

Iruñean, 2021eko ekainaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu #ExigimosLaIgualdadTrans kanpainarekin.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko ekainaren 9an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Estatu mailan trans pertsonen eskubideak babestuko dituen lege bat onestearekin.

2. Heldu den ekainaren 14an, Nafarroako Parlamentuak ekitaldi bat egingen du #ExigimosLa-

gualdadTrans kanpainarekin bat egiten duten Nafarroako taldeekin batera.

3. Nafarroako Parlamentuak trans bandera duen olana paratuko du bere fatxadan”. (10-21/DEC-00035).

Iruñean, 2021eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Haur Eskolen Zerbitzu berriari buruzkoa.***PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkeztutako galdera, Haur Eskolen Zerbitzu berriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Pedro González Felipe jaunak honako galdera hau egiten dio Hezkuntzako kontseilariari, batzordean ahoz erantzun diezaion:

Hezkuntza Departamentuan sortu berri den Haur Eskolen Zerbitzuak zer eginkizun berri hartuko ditu 0-3 eta Landa Eskolen Atalaren aldean?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 28an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

**Galdera, maskaren erabilerari buruzkoa.***PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak aurkeztutako galdera, maskaren erabilerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Patricia Fanlo Mateo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

COVID-19aren kontrolari eta txertaketaren erritmoari buruzko datuak onak direnez talde-immunitatea lortzeari begira:

Nafarroako Foru Komunitatean nola, non eta noiz has gintezke maskararik gabe ibiltzen?

Iruñean, 2021eko ekainaren 2an

Foru parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

## **Galdera, desgaitasuna duten edo izateko arriskua duten 3tik 6 urtera bitarteko seme-alabak dauzkaten familiei ikastetxeetan ematen zaien arretari buruzkoa.**

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztutako galdera, desgaitasuna duten edo izateko arriskua duten 3tik 6 urtera bitarteko seme-alabak dauzkaten familiei ikastetxeetan ematen zaien arretari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak honako galdera hau aurkezten du, Hezkuntzako kontseilariak Hezkuntza Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zure ustez, ikastetxeetan arreta goiztiar integrala eta kalitatezkoa jasotzen ari dira desgaitasuna duten edo izateko arriskua duten 3tik 6 urtera bitarteko seme-alabak dauzkaten familiak?

Iruñean, 2021eko ekainaren 2an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

---

## **Galdera, desgaitasuna duten edo izateko arriskua duten 3tik 6 urtera bitarteko seme-alabak dauzkaten familiei ematen zaien arretari buruzkoa.**

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztutako galdera, desgaitasuna duten edo izateko arriskua duten 3tik 6 urtera bitarteko seme-alabak dauzkaten familiei ematen zaien arretari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Eskubide Sozialetako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak Eskubide Sozialetako Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zure ustez, arreta goiztiar integrala eta kalitatezkoa jasotzen ari dira desgaitasuna duten edo izateko arriskua duten 3tik 6 urtera bitarteko seme-alabak dauzkaten familiak?

Iruñean, 2021eko ekainaren 2an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

## **Galdera, Tuterako zubia zaharberritzeari buruzkoa.**

*YOLANDA IBÁÑEZ PÉREZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Yolanda Ibáñez Pérez andreak aurkeztutako galdera, Tuterako zubia zaharberritzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Lurralde Kohesiorako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Yolanda Ibáñez Pérezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilari Bernardo Ciriza Pérez jaunak batzordean ahoz erantzun dezan:

Zeintzuk dira Lurralde Kohesiorako Departamentuak egin dituen azken aurrerabideak Tuterako zubiaren egitura eta estetika zaharberritzeko?

Iruñean, 2021eko ekainaren 3an

Foru parlamentaria: Yolanda Ibáñez Pérez

## **Galdera, Lurralde Kohesiorako kontseilariak iragarritako 17,6 milioi euro inguruko 13 obrei buruzkoa.**

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, Lurralde Kohesiorako kontseilariak iragarritako 17,6 milioi euro inguruko 13 obrei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Lurralde Kohesiorako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilari Bernardo Ciriza Pérez jaunak batzordean ahoz erantzun dezan:

Zertan dira Lurralde Kohesiorako kontseilariak iragarritako 13 obrak (Mugarteko sarbide berria, Ekialdeko eta Mendebaldeko saihebidia, Orkoiaren eta Arazuri bitarteko bikoizketa, Itaroako pasabidea, eta abar), zeinetarako 17,6 milioi euroko inbertsioa aurreikusten baitzen?

Iruñean, 2021eko ekainaren 2an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

## **Galdera, Dualiak ematen duen telefono bidezko interpretazio zerbitzuari buruzkoa.**

*JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Dualiak ematen duen telefono bidezko interpretazio zerbitzuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko ekainaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen

Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

1. Dualiak ematen duen telefono bidezko interpretazio zerbitzuak zenbat minutu eta zer hizkuntzatant erabili zituen minutu horiek 2020ko ekitaldian? Eta 2021ean, galdera honi erantzuten zaion egunera arte?

2. Departamentuak nola kontrolatu du kontratatu diren 7.400 itzulpen-minutuen kontsumoa?

3.- Zer balorazio egiten da zerbitzu horren inguruan? Ekitaldi honetarako edo 2022korako berritzeko asmorik ba al da?

Iruñean, 2021eko ekainaren 1ean

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

## **Galdera, errenta bermatuaren jasotzaileei Estatuak ordaindutako dirukopuruari buruzkoa.**

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, errenta bermatuaren jasotzaileei Estatuak ordaindutako dirukopuruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko ekainaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuak zenbat diru ordaintzeari utzi dio bizitzeko gutxieneko diru-sarrerara abian jarri zenez geroztik, errenta bermatuaren jasotzaileei legokiekeen diru-kopuruaren parte bat Estatuak ordaintzearen ondorioz? Informazioa hilez hil zehaztuta jaso nahi dugu.

Iruñean, 2021eko ekainaren 3an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

## **Galdera, Cidacos eta Aragoi ibaietako alubioietako lurpeko uren kutsadurari buruzkoa.**

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Cidacos eta Aragoi ibaietako alubioietako lurpeko uren kutsadurari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko ekainaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkeztu dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak idatziz erantzun diezazkion:

Orain dela gutxi isurketa kontrolatugabeak gertatu ziren Martzillan, herriko bizilagun ugariaren kezka eta mobilizazioa eragin zutenak. Marcilla Viva kolektiboaren txosten bat ere argitaratu da: "Análisis de la evolución del promedio anual de nitratos en las masas de agua subterráneas de los aluviales Aragón-Ebro y Cidacos (Navarra). Identificación de las tendencias ascendentes y posibles causas" (Nitratoen urteko batezbestekoaren bilakaeraren analisia Aragoi-Ebro eta Cidacos ibaietako alubioietako lurpeko ur-masetan. Goranzko joeren identifikazioa eta balizko zergatiak).

Isurketa horien gaineko informazioei eta dau den datu publikoei esker (esaterako, lurpeko uren sareari buruzko 2020ko oroitidazkia), eremu horretako lurpeko uretan nitratoaren presentziaren maila (mg/l) zein den jakin daiteke. Informazio publiko hori eta egiten ari diren azterlanak ikusita, galdera bat sortzen da: Nafarroako eremu horretan zer dela-eta handitzen ari da nitratoen kontzentrazioa?

Martzillak oraindik ere edateko erabiltzen du lurpeko ura. Gainera, bere ekonomiaren parte handi bat nekazaritzan, abeltzaintzan eta elikagaien industrian oinarritzen da, eta jarduera horietan ura funtsezkoa da jarduera horiek iraun dezaten.

Ur hori guztia Martzillako zorupean dagoen akuiferotik heldu denez, isurketa horiek ikusita eta eremu horretako nitrato-mailaren datuak aztertuta, alarma guztiak piztu ziren.

Martzillako nahiz inguruko beste herri batzuetako lurpeko uren nitrato-maila nabarmen eta etengabe igo da azken urteotan. Halere, guk dakigula, ez da ezer egin joera hori iraultzeko. Are gehiago, nitratoen metatzearen igoera horretan eragin zuzena izan dezaketen zenbait praktika eta jardura baimentzen ari dira.

Nabarmendu beharra dago, halaber, nitratoez ura kutsatua izan dezakeen eremu gisa katalogatuta dagoela eremu hori, ingurumena bereziki babesteko zenbait alderdi edukitzeaz gain; besteak beste, Pitillasko Aintzira, Aragoi eta Arga ibaien beheko tartekak edo Escuderako putzua. Hortaz, etengabe eta zorrotz egin behar dira nitratoen metatzearen nahiz nitratoak areagotzean eragin dezaketen jardueren kontrola eta zaintza.

Hori guztia ikusita, honako galdera hauek aurkeztu dira, idatziz erantzun dakien:

1.- Departamentuaren ustez, zeri zor zaio Aragoi ibaiaren behealdeko lurpeko uretako nitratoak nabarmen eta etengabe igoetzea, ur horiek larriki kutsatuta egoteraino?

2.- Ohartzen al da Departamentua Cidacos ibaiaren alubioietako lurpeko sei ur-estazioetatik bostetan kutsadura-atalasetik goiti zeudela 2020an nitrato-balioak (50 mg/l) eta gainontzekoak arriskuan zeudela (25 mg/l)?

3.- Departamentuak zeri egozten dio Martzillako arroaren hegoaldeko estazioetan nitratoen igoera nabarmena izatea ur freatikotetan?

4.- Aragoi ibaiaren behealdeko eta Cidacos ibaiaren azken tarteko lurpeko urek gorako joera nabarmen eta etengabea izan arren, joera hori ez da orokorra alubioi osoan, Ebro ibaiari lotutako estazioetako uretako nitratoen joera egonkorra eta are beherakoa baita, halako moduan non zen-



bait kasutan erreala baita leheneratzea. Departamentuak nola azaltzen du hori?

5.- Ur freatikoetako nitrato-kopuruak gora egiteko joera nabarmena eta etengabea dauka eremu zehatz batzuetan (arazoa Murillon, Martzillan, Alesbesen eta Milagron ardazten da). Departamentuaren ustez, zeri zor zaio zonakatzeko hori?

6.- Kontuan izanda Ur azpiko urak kutsaduratik eta hondatzen babestea erregulatzen duen 2006/118/CE Zuzentarauak dioena –"Joera nabarmen eta etengabeak iraultzera bideratutako neurriak aplikatzeko abiapuntua izanen da kutsatzailearen metatzeak lurpeko uren kalitateari buruzko arauen balio parametrikoen % 75 egiten duen unea" (hau da, 37,5mg/l)– eta "Milagroko hornidura-putzu zaharra" estazioak, Alesbesko hornidura-putzuak, Martzillako Campobajo zundaketa-estazioak eta Cidacos ibaiaren arro ia osoak urteak daramatzatela maila horiek gainditzen, Departamentuak zer neurri hartu du edo hartzen ari da? Eraginkorrak eta aski direla uste al du?

7.- Eremu horretan hautemandako joerak irauli ahal izateko faktore erabakigarri bat da, zalan-tzarik gabe, urak egoera horretara eraman dituen arazoak nagusia edo nagusiak identifikatzea, bestela ezinezkoa izanen bailitzateke akuiferora leheneratzea. Hori horrela, Departamentuak zein uste du dela arazoia eremu zehatz horretan?

8.- Departamentuak aztertu al du Martzillako, Alesbesko, Milagroko, Murillo el Cuendeko eta Caparrosoko azizien nitrogeno-ekarpenaren bilakaera?

9.-Caparrosoko behi-aziendaren nitrogeno-ekarpena asko areagotu da 2010etik hona, 2019an eremu osoan izan den nitrogeno-ekarpenaren % 30 egiteraino. Departamentuaren ustez, ekarpen hori al da eremuko nekazaritzan eta abeltzaintzan gertatu den aldaketarik nabarmenena?

10.- Caparrosoko behi-aziendaren nitrogeno-ekarpenak gorako joera etengabea dauka, Martzillako, Alesbesko, Milagroko eta Murilloko estazioetan lurpeko uretako nitratoan detektatutakoaren gisakoa. Hori horrela, Departamenturen ustez, Aragoi eta Cidacos ibaien behealdeko ur freatikoetako nitratoetan hautemandako gorako joerarekin zerikusia izan lezakeen faktore garrantzitsu bat izan al liteke hori?

11.- Lurpeko uren sareari buruz Nafarroako Gobernuak 2020an egindako oroitidazkian, eremu horretan nitratoen igoera nabarmen eta etengabea gertatu dela identifikatutako estazioetatik hirutan soilik daude 2010a baino lehenagoko eta ondoko

datuak. Estazio horietako joerak aztertuta ikus daiteke hiru estazio horien portaera oso antzekoa dela. Joeraren aldaketa bat ikus daiteke, Caparrosoko behi-aziendaren nitrogeno-ekarpenaren igoerarekin bat datorrena. Martzillako hornidura-putzuaren estazioan ikus daitekeenez, 2009ra bitarte egonkor zirauten, edo jaitsi egin ziren gutxika-gutxika, nitrato-mailek. Jaitsiera horren arazoia izan liteke nekazaritza gutxika-gutxika albo batera utzi izana eta lurrak industriara bideratu izana.

Halere, 2010etik aitzina, Caparrosoko behi-azienda handitzearekin bat, nitrato-maila gora egiten hasi zen.

Beste horrenbeste, edo are gehiago, gertatzen da Alesbesko putzuan, non nitrato-mailaren goranzko joera nabarmena izan baita 2010etik aitzina. Nabarmendu beharra dago 2009ra bitarte nitrato-mailak konstanteak edo are beheranzkoak zirela, balioen bat 50mg/l-tik beherakoa zela, eta 2010etik aitzina hasi zirela nitratoen balioak gora egiten urtez urte, 100mg/l-tik gora egoteraino. Azkenik, Milagroko hornidura-putzu zaharreko lurpeko uretan, nitrato-mailen goranzko joera oso nabarmena da 2010etik aitzina, eta azpimarratu beharra dago Caparrosoko behi-azizientatik heldu den nitrogeno-igoeraren datuak soilik hartuz ia bikoitza dela batez besteko igoeraren erritmoa: 6,59mg/l-ko igoera urte bakoitzean, joera orokorra 3,94 mg/l-koa den bitartean. Datu ofizial horiek ikusita, zer azalpen edo interpretazio egiten du Departamentuak datu horiei guztiei buruz eta Caparrosoko azizian hazkunde oso handia gertatu zenez geroztik izandako bilakaera negatiboari buruz?

12.- Departamentuaren ustez, zer harreman dago Caparrosoko azizienta handitu izanaren eta eremu horretan ingurumen-ukipenak agertu izanaren eta eremuko lurpeko uretan aldi berean nitrato-mailen joera aldatu izanaren artean?

13.- Departamentuak zer neurri hartuko ditu eremu horretako lurpeko uretan nitratoaren agerpen altu eta arriskutsua aldatzeko?

14.- Departamentuak Marcilla Viva kolektiboak egindako "Análisis de la evolución del promedio anual de nitratos en las masas de agua subterráneas de los aluviales Aragón-Ebro y Cidacos (Navarra). Identificación de las tendencias ascendentes y posibles causas" txostenaren berri al du? Zer iritzi du horretaz? Bat al dator txostenean emandako ondorioekin?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 19an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## Galdera, Caparrosoko Valle de Odieta SCL abeltegiari buruzkoa.

### ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Caparrosoko Valle de Odieta SCL abeltegiari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidaldez.

Iruñean, 2021eko ekainaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias


### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek

aurkeztu dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak idatziz erantzun diezazkion:

Valle de Odieta SCLk Caparrosen daukan abeltegira Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak egin zuen bisitaren informazioa ematean jasotzen da instalazioaren arduradunek "bio-abeltegi" deitzen diotela horri (<https://www.parlamentodenavarra.es/eu/komunikazio/landa-garapen-eta-ingurumen-batzordea-bisitan-joan-da-caparrosoko-valle-de-odieta>).

Izendapen hori –"bio-abeltegia"– sozietateak berak erabiltzen du, bai hedabideetan agertzen denean, bai Parlamentuaren ordezkariari emandako informazio idatzian ere, honako argazki haue-tan ikus daitekeenez:



“Bio” izendapenari aplikatu beharreko araudia honako hauek osatzen dute: Europako Batzordearen 889/2008 Erregelamendua, 2008ko irailaren 5ekoa, Produktu ekologikoen ekoizpenari eta etiketatzeari buruzko 834/2007 Erregelamendua aplikatzeko xedapenak ezartzen dituen, ekoizpen ekologikoaren etiketatze eta kontrolaren inguruan, eta hori dela-eta onetsi diren aldaketa guztiak.

Hori guztia ikusita, honako galdera hauek aurkezten dira, idatziz erantzun dakien:

1.- Valle de Odieta SCL merkataritza-sozietateak Departamentuan, INTIA enpresa publikoan edo Nafarroako Nekazaritza Ekologikoren Kontseiluan izapidetu al du espedienterik,

esnearen nahiz esnekien edo behi-haragiaren ekoizle ekologikoaren ziurtagiria jasotzeko?

2.- Europako Batzordearen 2008ko irailaren 5eko 889/2008 Erregelamendua –zeinak Produktu ekologikoen ekoizpenari eta etiketatzeari buruzko 834/2007 Erregelamendua aplikatzeko xedapenak ezartzen baititu, ekoizpen ekologikoaren etiketatze eta kontrolaren inguruan– zenbait baldintza ezartzen ditu produktu bat ekologikoa dela edo abeltegi bat bio-abeltegia dela ezartzeko. Departamentuaren ustez, Valle de Odieta SCLk ustiatzen duen abeltegiaren instalazioen estabulazioak, elikadurak eta hazkuntzak baldintzak baldintza horiek betetzen al dituzte?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 19an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

